

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Behar dugun bazkide nagusia bakarra da, gure proiektuak funtziona dezan. Oso garrantzitsuak dira guretzako, gure negozioa funtzionatzeko ahalbidetzen duen bazkidea delako. Arrazoi askorengatik kolaboratu dezake enpresa batek beste batekin baina gure arrazoi nagusiak kostuak gutxitzeko eta arriskuak murrizteko dira.

Giure bazkidea Bezoya da, Bezoya ur minerala Calidad Pascual taldearen jabetzakoa da, eta Bezoya, Ortigosa del Monte eta Segovia probintziako (Espainia) Cambrones de Trescasas ibaiko Zazpi Valles iturburutik dator. Mineralizazio oso ahulekoa da eta sodio gutxiko dietetarako eta etxeko txikientzako elikagaiak prestatzeko egokia da. Bezoyaren helburua, gurekin batera ingurumenearekin hobekuntza izatea da eta beraien ura sartzeko sortzen dituzten botila kutsagarriak gutxinaka aldatzea eta gaur egungo munduarekin elkartuagoak egotea.

Horretarako guk sortzen ditugun botila disolbagarriak, Bezoyaren urez egongo dira beteak. Honela bi enpresak gure hartean kolaboratuko dugu.

Gure proiektua martxan jarri baina lehen 1.000.000€ beharko ditugu. Horretarako diru iturri batzuk beharko ditugu eta gure finantziazio iturri nagusia Bezoya izango da. Gure bazkidea Bezoya denez kostuen porzentaje bat ordainduko digu: esan bezala, gure finantziazio iturri nagusia Bezoya izango da. Honek, beharrezko diruaren %75 jarriko du 750.000€ eta %25a 250.000€ guk jarriko dugu.

Aldi berean, guk ere Bezoyaren bazkideak gara eta ondorioz beraiek kostuen diru bat jartzean gure diru iturrien portzentai bat emango diegu. Esan bezala, gure urteko etekinak guztira botilak eta pack-ekin 3.600.000€koa izango da eta gure egitasmoa martxan jarri eta gero gure urteko irabazien %50 1.800.000€ Bezoyarentzat izango da. Ondorioz beste 1.800.000€ gelditzen zaizkigu guretzat. Behin enpresa martxan jartzerakoan eta irabazikiak edukitzean diru hau erabiliko dugu kostuak ordaintzeko. Salmentak espero duguna baina handiagoak baldin badira gure ekoizpena handitzearen inguruan pentsatzen hasiko gara baita ere.